

# SOZIOLOGIA

Bidane APECECHEA BERHO

*70. HAMARKADA ETA GAUR  
EGUN: GIZARTEA, FAMILIA ETA  
HEZKUNTZA*

*GBL 2013*

**upna**  
Universidad  
Pública de Navarra  
Nafarroako  
Unibertsitate Publikoa

Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea

*Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua*



**Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua**  
**Grado en Maestro en Educación Primaria**

Grado Bukaerako Lana

***70. HAMARKADA ETA GAUR EGUN:  
GIZARTEA, FAMILIA ETA HEZKUNTZA***

Bidane, APECECHEA BERHO

GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN FAKULTATEA  
FACULTAD DE CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES

**NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA**  
**UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**Ikaslea / Estudiante**

Bidane APECECHEA BERHO

**Izenburua / Título**

70. hamarkada eta gaur egun: gizartea, familia eta hezkuntza.

**Gradu / Grado**

Lehen Hezkuntzako Irakasleen Gradua / Grado en Maestro en Educación Primaria

**Ikastegia / Centro**

Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea / Facultad de Ciencias Humanas y Sociales  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa / Universidad Pública de Navarra

**Zuzendaria / Director-a**

Olatz MUÑOZ ARRIETA

**Saila / Departamento**

Soziologia/ sociología.

**Ikasturte akademikoa / Curso académico**

2012/2013

**Seihilekoa / Semestre**

Udaberrik / Primavera

## Hitzaurrea

2007ko urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, 2010eko 861/2010 Errege Dekretuak aldatuak, Gradu ikasketa ofizialei buruzko bere III. kapitulu hau ezartzen du: “ikasketa horien bukaeran, ikasleek Gradu Amaierako Lan bat egin eta defendatu behar dute [...] Gradu Amaierako Lanak 6 eta 30 kreditu artean edukiko ditu, ikasketa planaren amaieran egin behar da, eta tituluarekin lotutako gaitasunak eskuratu eta ebaluatu behar ditu”.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Haur Hezkuntzako Irakaslearen Graduak, ANECAk egiaztatutako tituluaren txostenaren arabera, 12 ECTSko edukia dauka. Abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Aginduak, Haur Hezkuntzako irakasle lanetan aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizialak egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituenak arautzen du titulu hau; era subsidiarioan, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2013ko martxoaren 12ko bileran onetsitako Gradu Amaierako Lanen arautegia aplikatzen da.

ECI/3857/2007 Aginduaren arabera, Haur Hezkuntzako Irakaslearen ikasketa-plan guztiak hiru modulutan egituratzen dira: lehena, oinarrizko prestakuntzaz arduratzen da, eduki sozio-psiko-pedagogikoak garatzeko; bigarrena, didaktikoa eta diziplinakoa da, eta diziplinen didaktika biltzen du; azkenik, Practicum daukagu, zeinean graduko ikasleek eskola praktikan lortu behar dituzten gaitasunak deskribatzen baitira. Azken modulu honetan dago Gradu Amaierako Lana, irakaskuntza guztien bidez lortutako gaitasun guztiak islatu behar dituen. Azkenik, ECI/3857/2007 Aginduak ez duenez zehazten gradua lortzeko beharrezkoak diren 240 ECTSak nola banatu behar diren, unibertsitateek ahalmena daukate kreditu kopuru bat zehazteko, aukerako irakasgaiak ezarriz, gehienetan.

Beraz, ECI/3857/2007 Agindua betez, beharrezkoa da ikasleak, Gradu Amaierako Lanean, erakus dezan gaitasunak dituela hiru moduluetan, hots, oinarrizko prestakuntzan, didaktikan eta diziplinan, eta Practicumean, horiek eskatzen baitira Haur Hezkuntzako Irakasle aritzeko gaitzen duten unibertsitateko titulu ofizial guztietan.

Lan honetan, oinarrizko prestakuntzako modulua/ak bidea eman digu ondoko hiru arloetan sakontzeko: norberaren ikaskuntza eta garapenean, hezkuntza prozesu eta testuinguruetan eta gizartea, familia eta eskolan. Guzti honek, gure estatuan hezkuntza sisteman izandako eboluzio historikoa garatzean datza. Bertan, 6-12 urteko haurren ikaskuntza prozesuen nolakotasuna ulertzeko aukera izan dugu; eskola zein eskolaz kanpo gertatzen diren ikaskuntzetan. Proiektu eta jarduera berritzaileak ezagutu ditugu, baloreetan oinarritutako hezkuntzan oinarrituz, herritar aktibo eta demokratiko bat hezteko helburuarekin. Proiektu honetan, gaur egungo gizartean egon diren aldaketak (teknologia berriak, multikulturalitatea, eskusioa, generoaren trataera, etb.) eskolan zein familian izan dituzten eraginak aztertuko ditugu era kritiko eta sakon batean. Honekin batera, familian eta eskolan ematen diren gizarteratze prozesuak aztertuko ditugu.

Didaktika eta diziplinako modulua/ak esparrua ematen dio lantzen diren irakasgai bakoitzaren (matematika, ingurumen zientzia, hizkuntzak, hezkuntza artistikoa eta gorputz hezkuntza) printzipio orokorrak ezagutzeko. Lan honetan, diziplina guztietan ariko gara; gizakiaren sozializatorako garrantzizkoak guztiak direlako; hala ere, hizkuntzaren diziplinak indarra hartzen du, gizarteri eta gizarteratze prozesu orean oinarri delako.

Halaber, Practicum modulua/ak eskola eta praktikek eta Gradu Amaierako Proiektuak barne izanik, bidea eman digu ezagutza praktikoa bat eskuratzeko. Hau da, errealitate baten aurrean irakaslearen eginkizun eta elkarrekintzak zein diren ezagutzeko aukera eman digu. Proiektu honetan, gaur egungo irakasleak familia eta inguratzen dion komunitatea kontuan hartuta bere eginkizuna zein den ezagutzeko aukera eman digu. Proiektu honetan, haurren paper aktiboa sortzen duen egoerari erantzuteko irakasleak ezagutu eta garatu behar dituen estrategietan erakusten da modulu hau.

Beste alde batetik, ECI/3857/2007 Aginduak ezartzen du, Gradua amaitzerako ikasleek gaztelaniazko C1 maila eskuratu behar dutela. Horregatik, hizkuntza gaitasun hau erakusteko, hizkuntza honetan idatziko dira “Introducción” eta “Conclusión” atalak baita hurrengo atalean aipatzen den laburpen derrigorrezkoa ere.







## Laburpena

Gaur egun garrantzia handia duen gaia lantzen da idazki honen bitartez: gizartea eta hezkuntzaren arteko erlazioa bai eta horien arteko eragina. Horretarako, elementu desberdinetan zentratuko gara, familian, eskolan eta hauek ahalbidetzen duten gizarteratze prozesuan. Lan honen bitartez, bi garai eta errealitateen arteko konparaketa bat planteatzen da; modu honetan, elementu batean, zein bertzean eman diren aldaketak aztertuz eta honek egungo egoeran izan duen eragina neurtuz. Honekin lotuta, hezkuntzak, egun agertu diren egoera berriei; teknologia berriak, sozializazio prozesuen aldaketak, familia eredu anitzak eta abarri erantzuna emateko planteatutako soluzioak aztertuko ditugu: hezkuntza komunitatea, kasu. Gauzak honela, irakasle, ikasle, familia eta inguruko instituzioek hezkuntzan duten eragina aztertu eta hau indartzen ahaleginduko gara; honek ekar ditzaken onura desberdinak gorai patuz.

*Hitz gakoak:* gizartea, gizarteratze prozesua, familia, hezkuntza, teknologia berriak.

## Resumen

Mediante este escrito estamos tratando un tema de gran importancia: la relación e influencia que tienen entre sí la sociedad y la educación. Para ello, nos centraremos en distintos elementos como la familia, la escuela y el proceso de socialización que posibilitan estos. Con este trabajo se propone la comparación de dos épocas y realidades. De este modo mediremos los cambios que se han dado tanto en un elemento como en el otro y las consecuencias que han acarreado estas en la actualidad. Relacionado con esto, la analizaremos las soluciones que ha creado el sistema educativo para dar respuesta a la nueva situación creada gracias a las nuevas tecnologías, nuevos procesos de socialización, nuevos tipos de familia, etc. Para terminar, tomaremos en cuenta las influencias que tienen el cuerpo docente, el grupo estudiantil, las familias y las instituciones que rodean la educación en todo este cambio.

*Palabras clave:* Sociedad, proceso de socialización, familia, educación, nuevas tecnologías.

## **Abstract**

Whit this writing we are going to talk about a current issue: the relationship between society and education. For that, we will focus on different aspects of our surrounding such as family, school and the media. They all affect on our character and have consequences in our socialization process. In the present work we are going to compare two realities lived in the same surrounding but in different times: the seventies and the present. Finally, we will try to find out the most important consequences new technologies have made in the actual schools and within the methodology field, teaching work and students groups.

*Keywords:* society, socialization process, family, education and the media.

---

## AURKIBIDEA

<b>Sarrera</b>	<b>1</b>
<b>1. Aurrekariak</b>	<b>3</b>
<b>2. Helburuak eta galderak/Objetivos y cuestiones</b>	<b>5</b>
2.1. Sociedad	5
2.2. Familia	6
2.3. Educacion	7
2.4. Medios de Comunicacion y nuevas tecnologias	8
<b>3. Marko teorikoa</b>	<b>9</b>
<b>4. Irakasle lanbidearekin harremana</b>	<b>13</b>
<b>5. Garapena</b>	<b>15</b>
5.1. Ikuspegi historikoa	15
5.1.1. 70. hamarkadako gizartea, familia eta hezkuntza	15
5.1.2. Egungo gizartea, familia eta hezkuntza	23
5.2. Abiapuntu kontzeptuala	29
<b>6. Autoreen ikuspegi arrazoitua</b>	<b>31</b>
6.1. Generazioa eta hauen sozializazioa	31
6.2. Hezkuntza	34
6.3. Hezkuntza komunitatea	34
6.4. Familiak eta eskolaren gizarteratze prozesua	35
6.5. Irakaslearen papera	37
6.6. Seme-alaben eskola emaitzak eta familien inplikazioa.	38
6.7. Teknologia berriak	39
<b>7. Kontraste kualitatiboa.</b>	<b>42</b>
<b>8. Emaitzak eta bere azalpena</b>	<b>46</b>
8.1. Haurtzaroa eta familia	46
8.2. Eskola eta familia arteko harremana	47
8.3. Eskolan erabilitako metodologia	47
8.4. Asialdia eta sexuen arteko desberdintasuna	50
8.5. Egungo eta 70. hamarkadako gizartea	51
<b>9. Eskolan duen eragina/ Influencias en la escuela</b>	<b>52</b>
<b>Ondorioak/Conclusiones</b>	<b>57</b>
<b>Erreferentziak</b>	<b>59</b>

---

---

## **SARRERA**

Urteak aurrera joan ahala, eskolari suposatzen zaizkion eginkizun eta bete beharrak aldatzen ari dira. Irakasleak edo aurrerantzean irakasleak izango garen aldetik, garrantzizkoa iruditu beharko zitzaigun aldaketa hauek aztertzea eta garai desberdinen arteko konparaketa bat egitea. Azken berrogei- berrogeita hamar urtetan aldaketa sakonak eman dira Espainiako estatu barruan alderdi soziologikoari behatzen badiogu. Honek eragin desberdinak izan ditu gizarte osaeran, familian eta gehien interesatzen zaigun gaian: hezkuntzan. Oso garrantzitsua da irakasleak izango garen aldetik, gizarteak eskolan duen eraginaren inguruan hausnarketa sakon bat egitea. Izan ere, eta urteen poterioroz ikusi den bezala, gizarteak eskolan eragin handiak eta sakonak izan ditu.

Gauzak honela, lan honen bitartez Estatu Espainiolean azken berrogei urtetan eskolan egon diren aldaketak behatuko ditugu. Duela 40 urteko egoera eta gaur egungo egoera aztertuko ditugu, bi errealitateak konparatuz eta hauen gainean hausnartuz. Lan hau egitea beharrezkotzat jo beharko genuke; izan ere, denbora gutxian aldaketa asko egon dira gure inguruan, ondorio desberdinak ekarri dituztenak eskolan. Hezkuntzan lan egin behar dugun aldetik, aldaketa hauen abiapuntua ezagutu behar dugu. Gainera, guzti hauek hezkuntza forma berri bat planteatzera eramaten digu eta hauen ezaugarriak ezagutzea inportantea da.

---

---

## 1. AURREKARIAK

Munduan zehar bidai luze bat eginez gero, konprobatuko genuke, herrialde guztietan haien ondorengo heziketa eta hezkuntzaren gaineko kezka bat dagoela. Izan ere, urteak atzera eginez gero ere, konprobatuko dugu, kultura eta garai guztietan hezkuntzaren inguruko kezka bat egon dela. Honekin erran, askotan hezkuntza eskolarekin bakarrik erlazionatzen dugula; baina argi geratu dadila, alor hau askoz zabalagoa dela. Bukatzeko, kontuan hartzen badugu eskolaren funtziotako bat gure ondorengoak datorkion errealitatea ezagutzea eta horretara prestatzea dela; eskolaren garrantzia onartua dago gizarte guztietan. Hau da, eskolak bere lekua izango du herrialde guztietako gizartean eta honen osaeran.

Gauzak honela, azken urte hauetan, eskolaren inguruan hiru iritzi edo kritika nagusi zabaldu dira.

- a. Alde batetik, ideia horietako batek, eskolak duen eskolaratze kopuruari eta kalitate faltari egiten dio erreferentzia. Espainiako estatuan eskolaratze faltaren egoera ez da horren larria; izan ere, estatuko haur guztiak eskolatuak daude (3-16 urte bitartean haur kopuruaren %100 eskolarizatua dago INE) eta erraztasunak izaten dituzte eskolara joateko. Hala ere, munduan hainbat herrialde daude; batez ere, Afrika aldean, zeinetan haurrak ez duten eskolara joateko aukerarik; eta bertze batzuetan, aukera izan arren, lau edo bost orduko ibilaldiak egin behar dituzte eskolara iristeko. Kalitatearen inguruan hitz egiten hasten garenean, Europan zentratuz gero, honen kalitate eskasiaz entzuten dugu. Gaur egun, Europako herrialde hauetan, hezkuntzaren kalitatea PISA-ren informearen bidez neurtzen da; non ikasleak alor desberdinetako azterketa batzuk egitera behartuta dauden eta hauetan ateratako emaitzak kontuan hartuta estatistikak egiten dituzten. Informe honen arabera, Europako Batasuna osatzen duten herrialde guztiak, hezkuntza kalitate kaxkarra erakusten dute Finlandian izan ezik.

Gauzak honela, diskurtso honi jarraituz, hezkuntzaren kalitatea era kuantitatibo batean neurtzen da; aldiz, proiektu honetan aurrera pauso bat emanen dugu, eta kalitate eskasiaren inguruan aritzerakoan alderdi kualitatibo batetik egingen dugu. Hau da,

---

hezkuntza kalitatea neurtzeko, orain ez da inportanteena azterketa batzuetan ateratako emaitzak; baizik eta, ikaskuntza prozesuan izandako aurrerapena eta lortutako garapena. Egungo hezkuntza sistemetan ez zaie ikasle guztiei beharrezkoa duten erantzuna ematen. Hezkuntza sistemaren eginkizun nagusia haurrei kalitatezko heziketa bat ematea da eta horretarako zenbait elementu hartu behar dira kontuan. Hasteko, gizaki guztiak sortzen garen unetik desberdinak gara eta elementu batzuk amankomuenan izan arren; gizaki bakoitza bakarra da eta ikasteko era bat dauka. Adibidez, ikasle batek errazago ikas dezake bere inguruan musika duela, aldiz, bertze batek isiltasun osoa beharko du zerbait egiteko. Gauzak honela, erran dezakegu, ikasle bati balio dionak ez diola bertze bati balioko edo alderantziz.

- b. Azken urte hauetan eskola inklusiboaren inguruan hitz egiten hasi da arazo horri soluzioa bilatzeko intentzioarekin. Hezkuntza inklusiboaren bidez, ikasleen arteko diferentziak kontuan hartuz, haur guztiei bere neurriko eta kalitatezko irakaskuntza bat eskaintzea da. Diferentziek ez dute irakaskuntza prozesua eragozten, aberasten baizik. Planteamendu hau nahiko berrikoa da; izan ere, ikasleen alderdi kuantitatiboa baztertu (azterketetako notak) eta kualitatiboan zentratzen da, eta pauso txikiak ematen ari dira honen alde. Modu honetan, ikasle guztiei erantzun egokia emateko eta guztiontzako kalitatezko hezkuntza bat eskainiz. Hala ere, oraindik, nahiko utopikoa da planteamendu hori eta aurrera pausoak egin arren, oraindik ezin dugu hitz egin estatu Espainolean kalitatezko hezkuntza bat dagonik. Arazo honi soluzio moduko bat emateko, hezkuntza komunitateen planteamendua azalarazten ari da; non, irakasleak, familia eta komunitatea elkarlanean ariko diren helburu berdina lortzeko.
- c. Bertzalde, hezkuntzaren inguruan zabaltzen ari den bertze ideia nagusi bat hezkuntzaren gizarteratze balioa eta eginkizuna da. Duela berrogeita hamar urteko gurasoei galdetzen bagenien eskolaren egin beharra edo funtzioa zein zen; dudarik gabe, ia gehienek erantzun berdina emango zuten: haurrek zerbait ikastea: matematika, hizkuntza, katixima, etb. Aldiz, egun galdera berdina egiten badugu, erantzunak bertzelakoak izango dira. Askok errango dute eskolaren funtzioa haurrei erakustea izango dela; hala ere, bertze batzuk



---

haruntzago joango lirateke eta funtzio honetaz gain, gure seme-alaba haztearen erantzukizuna gehitu liokete.

Argi dago eskolak funtzio hezitzailea edo gizarteratzailea duela; baina, aurrerago ikusiko dugun moduan, hori ez da gizarteratze prozesu horren oinarria. Haurrak eskolan daudenean, hainbat elementu komunean dituzten talde txikiak eratzen dituzte, eta honen barruko arauak eta rol banaketak onartu eta betetzen dituzte. Beraz, erran dezakegu, gizartea ezagutzen hasten direla honen partaide izatearen sentimendua sortuz. Modu batean, eskolan era zuzen edo nahigabeko batean, gizarteratze prozesu bat ematen da. Hala ere, prozesu hau lehenagotik hasi behar da eta oinarri bat izan behar du eskolara iritsi aurretik; bertzela, ematen du eskolaren bete beharra dela, haurrei balio desberdinak erakustea. Orduan zein da gurasoen eta familiaren papera?

## **2. HELBURUAK ETA GALDERAK/OBJETIVOS Y CUESTIONES**

Este proyecto se va a realizar mediante la comparación de dos realidades vividas en la sociedad Española: la década de los setenta del siglo XX y el momento actual. Teniendo en cuenta que en este fragmento de tiempo han sucedido diversos cambios en distintos ámbitos de lo social; en este caso, nos centraremos específicamente en tres aspectos: sociedad, familia y educación.

### **2.1. Sociedad**

Para empezar, tendremos en cuenta los cambios generales que ha habido en la sociedad. Por un lado, analizaremos la sociedad de finales del franquismo:

- A) Como vivían el día a día?      B) Como eran las relaciones con el resto de Europa?*  
*C) Los movimientos de migración?      D) Los derechos y huelgas de los trabajadores?*

Durante todo el trabajo, principalmente, tendremos en cuenta la situación estatal, la de España, pero en algunos casos, trataremos de enfocar un poco más en la situación de la provincia de Navarra, para que de este modo tener mayor información sobre nuestro entorno.

---

Por otro, en estos días, se habla de que vivimos en la sociedad del conocimiento, la información se transmite de un lugar a otro de una forma más directa y rápida gracias a las nuevas tecnologías:

*A) Cómo afectan las TIC en la vida cotidiana de las personas? B) Y a las relaciones sociales? C) La adquisición más fácil de la información trae consigo la igualdad de posibilidades para todos los seres humanos?*

## **2.2. Familia**

Con los continuos cambios que se han dado en la sociedad, las familias también han sufrido las consecuencias. Mientras que hace unos años hablábamos principalmente de un tipo de familia tradicional, considerando a esta una unión entre un marido su mujer y los hijos e hijas de estos, hoy en día nos referimos a distintos tipos de familias.

*A) En qué consisten estos nuevos modelos familiares? B) Se pueden considerar familias a otro tipo de uniones?*

Se ha de reconocer que este otro tipo de uniones siempre ha existido, pero hoy día el porcentaje es más importante. Por ello, empieza a tomar importancia sociológica su análisis. En este sentido se dice que es un fenómeno bastante novedoso; aunque siempre haya habido otro tipo de uniones. Por eso, otro objetivo del trabajo es tener en cuenta los cambios que ha habido en la estructura familiar en los últimos años.

Muy relacionado con esto está el proceso de socialización que vivimos todos los seres humanos desde que nacemos. En este proceso, toman parte distintos agentes: la familia, la escuela, el grupo de iguales, los medios de comunicación, etc.

Es por eso que mediante este proyecto vamos a observar si se ha producido algún cambio en este proceso tan complejo y necesario para el ser humano. *Se sigue socializando de la misma manera a los niños/as? Con la evolución socio-laboral del papel de la mujer en la socialización se percibe algún cambio a favor de la igualdad entre sexos? Tiene el mismo papel la familia en el proceso de socialización hoy en día y en los años setenta?*

---

### 2.3. Educación

Por último, otro de los aspectos a tener en consideración es la educación. En el año 1970 se aprobó una ley de educación en España (Ley General de Educación) para intentar alcanzar los resultados deseados y tratar de acercarse más a sus vecinos Europeos. A) *Porque era tan necesario cambiar la educación de aquella época?* B) *Como era en realidad la escuela de aquel momento?* Todas estas preguntas son muy interesantes para poder hacernos una idea de cómo era la educación de aquel entonces y para que de esta forma poder compararla con la educación actual.

En los tiempos que corren, la escuela es un lugar de aprendizaje que también cumple con otras tareas; enseñar unos valores a los estudiantes, acercarles las nuevas tecnologías a las aulas, etc... que hasta ahora no formaban parte de sus prioridades.

A) *Cual es hoy en día la labor de la escuela?* B) *Como realiza todo ese trabajo?*

Actualmente, se está creando un nuevo formato de escuela donde se intenta crear una comunidad educativa donde todos los integrantes de la educación de l@s niñ@s trabajen de forma conjunta para que de esta manera la educación sea más completa e integral.

C) *Como se surge esta idea?* D) *Cuál es la labor de cada integrante de la comunidad educativa?*

En las últimas décadas, de los planteamientos de la escuela integradora, se ha evolucionado hacia la idea de una escuela inclusiva, donde todos los alumn@s de la escuela tengan su sitio teniendo en cuenta sus diferencias y aprendiendo de ellas. Todo esto es una idea muy renovadora la cual pide un gran trabajo a la comunidad educativa (cuerpo docente, familias y estudiantes):

E) *Que es lo que tiene que hacer el maestro?* F) *y los alumnos?*

G) *Cumple este su trabajo de forma autónoma o con la ayuda de la comunidad educativa?*

---

#### **2.4. Medios de comunicación y nuevas tecnologías.**

Para terminar, otro aspecto que está tomando fuerza en la sociedad actual son los medios de comunicación y las nuevas tecnologías. En la sociedad moderna, para transmitir esa información tan importante y valiosa, se usan como canal los medios de comunicación. Hoy en día, gracias a estos, la información llega a toda la sociedad de una forma directa; sin tener en cuenta los intermediarios (las agencias de noticias, los gobiernos, los periódicos,...) que filtran la información. Además, gracias a las nuevas tecnologías, ya no acudimos solo a la televisión como único método de comunicación, con la llegada de los móviles de última generación, ordenadores portátiles, tabletas... la información recorre distancias infinitas en un plazo mínimo de tiempo de forma más personalizada. Este es un cambio muy importante que se está dando en la sociedad, que hay que tener muy en cuenta; es por eso, que las nuevas tecnologías están tomando posesión de distintas áreas de nuestros días. Hoy es muy raro encontrar una escuela que no tenga, al menos, un ordenador.

*A) Pero cuál es la labor de las TIC en las escuelas? B) Para que se usan realmente?  
C) Es importante su formación?*

Como se puede comprobar, al final, el proyecto va a abordar cuatro ámbitos importantes: la sociedad, la familia, la escuela y las nuevas tecnologías y medios de comunicación. El objetivo es profundizar en el estudio de los cambios que se han producido en estos aspectos de la realidad y las consecuencias que ello ha tenido.

---

### 3. MARKO TEORIKOA

Hezkuntza oso gai garrantzitsua kontsideratua izan da egungo zein aurreko mundu guztiko gizarteetan. Izan ere, hezkuntzaren bidez, belaunaldi berrietako gizakiak, sortzen diren uneko jokamoldeak, ikuspuntuak eta ezagutzak bereganatzen dituzte. Bete behar hau ez da batere erraza eta diziplina desberdinek parte hartzen dute honetan; alderdi soziologikoak, pedagogikoak, kulturalak, psikologikoak, eta abar. Guzti hauek kontuan hartuta ahalik eta hezkuntza integralen eta osatuen eratzen ahalegintzen gara. Modu honetan, transmititu beharreko balore, jokatzeko moduak, rolak, eta ohiturak bere osotasunean eskuratzeko. Hau kontuan hartuta, ondorengo lerroetan hezkuntzaren inguruan aritu diren hainbat zientzia aztertuko ditut era espezifiko batean.

Lehenik, hezkuntzak duen alderdi soziologikoan erreparatuko dut. Hezkuntza gizakiak sozializatzeko era bat da; izan ere, egungo gizartean hiru urtetatik aurrera haur guztiak (edo gehienak) eskolara joaten dira; non hezkuntza espezifiko bat jasotzen duten. Bertan, gizartean bizitzeko ezagupenak zein baloreak transmititu ikasi eta barneratzen dira. Gauzak honela, gizarteratzea gizabanakoek komunitate bateko ohiko bizimoduak ikasteko eta barneratzeko egiten duten prozesua bezala definitzen da. Honekin erran nahi da, gizarteratzearekin batera, komunitate baten partaide izatera pasatzen garela; alor pertsonaletik, alor sozialera pasatzen gara; orain ez zaude zu bakarrik, talde baten partaide zara. Gainera, kontuan hartu behar da gizakia animalia soziala dela, bertzeen beharra daukala bizitzeko. Beraz, erran daiteke eskolak funtzio hori argi eta garbi betetzen duela.

Prozesu hau ez da eskolan hasten eta hemen bakarrik gauzatzen. Izan ere, sortzen garen unean, gure familiaz inguratuak gaudela, gure gizarteratze prozesua hasten da. Gizarteratze prozesu honi, *lehen mailako gizarteratzea* (Charles Cooley) deitzen zaio eta honetan bere ingurunearekin eratutako harreman afektibo eta emozionalak garrantzi handia hartzen du. Lehen pausu hau ematea oso garrantzitsua da; izan ere, badira kasu batzuk, zeinetan haur batzuk gizarteratze fase honen gabezia pairatu duten. Kasu honetan, haur basatiez hitz egiten dugu; modu batean edo bertzean,

---

behin adin bat dugula, gizarteratze fase hau gainditu ez badugu, ez dugu inoiz lortuko gizarte horretako partaide izatea.

Eskola munduan sartzen direnean gizarteratze prozesua gauzatzen jarraitzen da. Familiarekin harremanak jarraitzen du; baina, haurra, orain bertze gizarte talde bat ezagutzen hasten da eta honen partaide sentitzen hasten da. Fase honi bigarren *mailako sozializazioa* (Charles Cooley) deritzo. Prozesu honen bidez, lan banaketari dagozkion rola eta instituzio berezietan dagozkienak barneratzen dira (BERGER eta LUCKMAN, 1972). Horretaz gain, fase honetan harreman afektiboak eta emozionalak garrantzia galtzen du. Izan ere, kasu honetan harremanak ez dira guztiz egonkorak eta iraunkorak izaten; klase batetik bertzera aldatzen dira ikasleak eta klase-kide batzuekin harreman estuagoak eraikitzen dituzte bertze batzuekin baino.

Azken finean, soziologia gizarteraren portaera sozialak eta horien eskuraketa aztertzen dituen zientzia kontsideratzen da. Modu honetan, erran bezala jasotako hezkuntzak eta eskolak erlazio handia dute diziplina soziologikoarekin; izan ere, jasotako hezkuntzaren bitartez, gure egitura indibiduala zein soziala osatzen joaten gara poliki-poliki. Horregatik garrantzitsuaz jotzen dut, hezkuntzan faktore hau kontuan hartzea.

Bertzalde, eta gai honekin lotura handia duelarik, familiaren soziologia landuko dut. Diziplina hau nahiko berria da alor soziologikotik behatuz gero; izan ere, diziplina antropologikoak, dagoeneko lanketa bat egin du honen inguruan ( Klemm, Bachofen, Tylor, Frazer, etb) eta ez dira autore asko gai honen inguruan aritu. Hala ere, azken hamarkadetan indarra hartzen joan da familian ematen ari diren aldaketak direla eta. Gaur egun familia mota desberdinak aurkitzen eta "onartzen" ditugu; guraso bakarrekoak, guraso banandutakoa, homosexuala, nuklearra, zabala, tradizionala eta abar.

Fenomeno hau nahiko berria da; izan ere, orain arte familiak ia bere osotasunean patrio tradizionala jarraitzen zuten; aita, ama eta seme-alabak eta horren inguruan ez zegoen gauza handirik ikertzeko. Aldiz, egun errealitatea bertzelakoa da eta familiaren egiturak ere, ondorioak izan ditzake ikasleen hezkuntza prozesuan. Egun ikastetxeetan familia tradizionalaz gain, bertzeak ere agertu dira; gero eta ikasle gehiagok bi ama dituzte, aita bakarra, bi aita ... Hala ere, egoera horiek ohikotzat hartzen hasten diren

---

arren, eskolako materialak oraindik ere ez daude prestatuak eta ez dituzte familia mota ezberdinak erakusten, orokorrean eredu tradizionalera mugatzen dira. Eskola eta irakaslearen lana da, eredu desberdinak kontuan hartzea, beharrezkoa den materiala erabiliz hauekin lan egiten hasteko.

Bukatzeko, alderdi pedagogikoak ere garrantzia hartzen du hezkuntzaren arloan. Izan ere, hainbat eta hainbat hiztegitan erraten den moduan, pedagogia hezkuntza eta irakasketaz arduratzen den zientzia da. Garai berri honetan, eskolan erabiltzen den lan egiteko forma aldatzen ari da eta metodologia berri batenganako apustua egiten ari da. Urteak atzera joanez gero, konprobatuko dugu, ikasleak irakasleak ematen zituzten azalpenen entzule hutsak zirela; aldiz, orain ikasle aktiboak izateko ideia zabaltzen ari da.

Horrez gain, erabiltzen diren materialak bertzelakoak dira: adibidez, lehenago eskolan liburu bat zegoen ikasle guztiontzako eta haur guztiak ariketak bakoitzaren koadernoan egiten zituzten. Gaur egun aldiz, eskola guztietan ikasle bakoitzak arlo bakoitzerako bere liburua dauka eta ikastetxe batzuetan gainera, ikasle bakoitzak bere ordenagailua dauka bere lanak egiteko edo behar duen informazioa bilatzeko. Beraz, erran daiteke, alderdi metodologiakoari begira, berrikuntza pedagogiko bat eman dela.

Honekin lotuta, hezkuntza arautzen duten legediak kontuan hartuko ditugu. Izan ere, azken 40 urtetan lau hezkuntza lege izan ditugu Espainiako estatuan:

- Ley General de Educacion 1970
- Ley de Ordenación del Sistema Educativo 1990
- Ley de Calidad de la Educación de 2002
- Ley Organica de Educacion 2006

Guzti hauek beren garrantzia izango dute historian zehar; batez ere, lehenak inflexio puntu bat zegoelako aurreko proposamenarekin alderatuz gero. Bertzalde, 2002. urtean proposaturiko hezkuntza legea ez zen guztiz aurrera eraman, gobernu aldaketa bat eman zelako. Guzti hauek gizartean ematen ari ziren eta diren aldaketak kontuan hartuz proposatzen diren hezkuntza legeak direla erran daiteke; hala ere, ez dute beti helburu hori betetzen eta askotan alor politikora mugatzen dira. Guzti hau erranda,

---

azpimarratu behar da, kasu honetan, batez ere, azken hezkuntza legean (Ley Orgánica de Educación 2006) eta 1970eko Ley General de Educación zentratuko gabela, eta bien arteko alderapen bat eginen dugula.

Horrez gain, kontuan hartuta proiektuaren helburua urteetan zehar eskolan zein gizartean egon diren aldaketak aztertzea dela, historiaren arloa landuko dugu; eta batez ere, eskolaren historia. Oso gai luzea eta emankorra da; hala ere, ez gara denboran oso atzera joango; berrogei bat urte bertzerik ez, eta Espainiako estatuan zentratuko gara. Estatuan garai honetan aldaketa desberdinak eta oso emankorrak gertatu dira; izan ere, diktadura egoera batetik demokraziarako bidea eratzten ari da. Gainera 1970. Urtean, arestian erran bezala, hezkuntza lege berri bat agertuko da; benetan oso berritzailea izango dena, Frankismoan izaera alde batera uzten saiatuko dena. Garai horretako eskolak ideologia politikoaren eta erlijioaren kutsu handia zeukaten: eskola guztietan frankoren irudi bat zegoen kristautasuna adierazten duen gurutzarekin batera. Argi dago, ideologia politikoaren kutsua oraindik ere, eskolan guztietan antzematen dela (batzuk ezkertiaragoak dira, bertzeak eskuindarragoak diren bitartean); aldiz garai horretan, eskola ideologia konkretu eta bakar baten ezarpenerako tresna bezala erabiltzen zen.

Egun aldiz, aurrerapauso bat eman dela erran daiteke, eskoletako ideologia ez da horren era esplizituan agertzen; eskolak ez dira ideologia politiko bat zabaltzeko tresnak bezala erabiltzen horren modu argian. Erlijiori begira, egun familiak, eta kasu batzuetan haurrak, aukeratzeko eskubidea dauka; ez dago derrigortua kristau erlijioa jasotzera, bertze aukera batzuk ditu. Orain, hezkuntza komunitateaz hitz egiten entzuten dugu; non hezkuntzan parte hartzen duten agente desberdinak elkarlanean aritzen diren helburu komun bat lortzeko: kalitatezko hezkuntza bat. Elkarlan hori oso garrantzitsua da eta agente guztiek paper aktibo bat jokatu behar dute, planteatutako helburua lortzeko.



---

#### 4. IRAKASLE LANBIDEAREKIN HARREMANA

Hezkuntzaren inguruan hitz egiten hasten garenean; askotan faktore pedagogiko eta psikologikoez hitz egiten dugu. Magisteritza ikasketei begira jartzen bagara ere, konprobatuko dugu, gai hauek direla gehien lantzen direnak. Azkenean, graduak irauten dituen lau urtetan bi diziplina horiek urte guztietan errepikatzen dira. Gauzak honela, askotan atzendu egiten zaigu hezkuntza alor zabalago bat dela. Bertan, hainbat eta hainbat diziplina aurkitu ditzakegu; linguistika, musika, artea, antropologia, soziologia, etb. Lan honen bitartez, batez ere, azken diziplina horren garrantzia azpimarratu nahi izan da.

Eskolaren betebeharren artean, batek honela dio; haurrak bizi behar duten errealitatea ezagutu dezaten eta aurrerantzean bertan bizitzeko ezagutu behar dituzten arauak barneratzea. Argi dago, askotan errepikatu bezala eskolak funtzio soziala duela eta honen garrantzia goraiatzea garrantzitsua da. Azken urtetan, eskolaren betebeharren barruan ikasleak gizarteratzea aipatzen da. Denboran atzera eginez gero, konprobatuko dugu, hori ez zela modu honetan egiten; familiaren bitartez lehen mailako gizarteratzea gauzatzen zuten eta ondoren eskolan, bigarren mailako sozializazioarekin hasten ziren. Orain aldiz, lehen eta bigarren mailako sozializazioen artean diferentzia ez da horren nabaria, eta askotan eremu berdinean gauzatu behar dira biak; honek ekartzen dituen arazo eta konplikazioekin batera.

Irakasleak lehen mailako sozializazio agenteak bilakatzen ari gara askotan eta gure papera aldatzen ari da hurrekin dugun harremanetan. Familien aldetik bi postura egon daitezke:

- 1) Alde batetik, irakaslearekin bat egin eta biak (irakasle eta familia) alderdi berdinerara joan daitezke. Hala nola, ikasle batek irakurketarekin arazoak dituela detektatzen diote eskolan; gauzak honela, irakaslea hori lantzen ahalegintzen da eta etxera iristerakoan familiak ere honetan ere parte hartuko du.
- 2) Bertze batzuetan aldiz, irakaslea alde batetik joaten da, familia bertze alde batetik joaten den bitartean. Adibide berdinarekin jarraikiz, irakasleak

---

irakurketari garrantzia ematen dio eta etxean familiak matematika egitera bidaltzen du haurra inolako loturarik izan gabe; irakasle eta familiaren artean.

Beraz, inportantea da, irakasleak familia zein komunitatearen laguntza izatea, hurrei benetako hezkuntza egoki bat eskaintzeko eta modu honetan ikasleak ikaskuntza integral bat gauzatzeko.

Horretaz gain, egun bizitzen ari garen errealitatean teknologia berriek beren lekua dute. Gure ingurura begiratzen dugun ia momentu oro pantaila bat aurkitzen dugu gure aurrean. Garrantzitsua da irakaslea gertaera honetaz kontziente izatea eta honekin lan egiten jakitea. Gaur egun, irakasleek ordenagailuak erabiltzen jakiteko beharra daukate; bertzela ez dira gai izanen gure ondorengoak biziko duten errealitatea erakusteko. Informazioaren garaian bizi garen une berdinetik, informazio hori transmititzeko erabiltzen diren metodoak erabiltzen jakin behar ditugu. Gainera, jasotako hori era kritiko batean aztertzen jakin behar dugu; ez da nahikoa jasotako guzti hori inolako analisirik egin gabe gure barruan sartzea.

Familia eta irakaslearen lana da gizaki kritiko batzuk sortzea, behar den unean jasotako informazioa era kritiko batean aztertzeko. Benetan lan gogorra da horren lanketa bat egitea ikasleak guk nahi dugun bezala manipulatu gabe. Askotan, guk testu bat aztertzerakoan iritzi bat eratzen dugu honen inguruan; positiboa edo negatibo. Aldiz, hurrekin lanean ari garenean, guk eratutako aurre-iritzi hori baztertu eta ikasleak eratu behar du, guk inolako baldintzatzerik inposatu gabe eta guk gure laguntza eskainiz. Beraz, oso lan inportantea da irakasleak aurrera eraman behar duena eta honen erantzukizuna handia da.

Gauzak honela, garrantzitsua ikusi beharko genuke gizarteak eta eskolak duten harreman estua aztertzea. Horretarako, konparaketa bat eginen dugu eremu berdin batean, baina garai ezberdinetan; modu honetan gizarteak eta inguruak eskolan duen eragina ikusirik.

---

## 5. GARAPENA

### 5.1. Ikuspegi historikoa

Aurreko puntuetan errepikatu bezala, lan honetan bi garaien artean aritu gara. Alde batetik, estatu Espainolean diktadura bukatzen ari zen urteetan ibiliko gara 1970 urtetik aitzin. Honetaz gain, Nafarroako egoerara zertxobait hurbilduko gara, garai horretako errealitatea ezagutuz. Bertzalde, zonalde berdineko egungo egoera aztertuko dugu. Modu honetan, bi errealitate hauen arteko konparaketa txiki bat planteatuz; batez ere, familian eta eskolan egon diren aldaketetan zentratuz eta hauen gainean hausnarketa eginez.


#### 5.1.1. 70. hamarkada: gizartea, familia eta hezkuntza.

- **Gizartea.**

1970. urtean Espainiako estatua diktadura erregimen batean bizi zen. Francisco Franco gobernuan zegoen 1936an eman zuen estatu kolpeaz geroztik, eta diktadura luze baten azken urteetan bizi da garai horretako gizartea. 1970. urtetik aurrera, Espainian zegoen egoera politiko eta araudikoan aurrerapen txikiak egiten hasten dira; Europako kontinentera hurbiltzeko asmoarekin. Izan ere, Europa mailan gizarteak aurrerapen handiak egin ditu bigarren mundu gerra amaitu ondoren; hala ere, Espainia atzean geratzen ari da. Erran bezala aldaketak poliki-poliki ematen ari dira gizartean; aldiz, gobernuaren aldetik, honen kontrako kanpaina gogor bat hasiko da errepresioa oinarri izanik.

Horrez gain, alderdi ekonomikoari begira, liberalizazio orokor bat eman zen eta honek Europarekin negozioak egitea ahalbidetu zuen. Bertako enpresek, industralizaziorantzko bidea egiten hasi ziren; landa eremutik jendea hirirantz ekarri; barne emigratio prozesu bat eraginez. Emigratio honetaz gain, Europa mailan Espainiako jende mugitzen hasi zen immigratio eta emigratio prozesu handiak eraginez. Estatuko jendea begiak irekitzen hasi zen, Europako eta munduko errealitatea zein zen ezagutuz eta honen alderdi positiboak Espainian aldarrikatuz. Garapen honek ekarri zituen ondorio nagusia Espainiako estatuaren egoera aldaketa izan zen: hau da, estatu atzerakoi eta itxi bat izatetik, honen ateak irekitzera pasatu

zen, Europako gainerako herrialdeekin erlazioak sortuz. Hala ere, Espainiako bizi kalitatea, Europakoarekin konparatuz, oso eskasa zen.



Garapen ekonomiko honek, Espainiako gizaterian aldaketak eragin zituen hau modernizatzen. Espainiako populazioa asko handitu zen garai honetan, jaiotze tasaren handitzearen ondorioz. Horrez gain, eta aurreko lerroetara bueltatuz, hirietako biztanleria asko handitu zen herritik hirira izan zen pertsona mugimenduen ondorioz. Estructura sozialean ere aldaketak izan ziren, gero eta jende gehiago

industria munduan sartu zenaren ondorio. Hau da, lan gehiena hiri handietako fabriketan zegoen eta honek gizarte talde berri baten eraketa eragin zuen; langileria.

Honen ondotik, frankoren heriotza eta gero, alderdi politikoan bi adar nagusi azalduko dira. Alde batetik, proiektu jarraitzaile (kontinuista) bat planteatuko da; non Franko gabeko frankismo baten alde egingo den. Bertzalde, oposizio antifrankistak, Europaren planteamenduari jarraikiz, honi uko egitea proposatuko du Espainia mundura zabalduz. Trantsizioa era graduatu eta paktatu batean egitea proposatuko da haustura handirik eta bortitzik eman gabe.

- **Nafarroako gizartea.**

Espainiako estatutik Nafarroako egoeran gehiago zentratuz gero, gauzak ez dira sobera aldatzen. Hemen ere, aldaketaren alde ariko dira eta batez ere, langile mugimendu handiak egonen dira Nafarroan agertzen diren industri guneeetan: Iruña, Tuter, edo, Lesaka-Bera. Arestian aipatu bezala, landa eremuko jendeak hirietara alde egin zuen lan eskaintzak zirela eta honek, fabriketan lan egiten zuten langileen klase soziala osatzea eragin. Talde honek, bere eskubideen alde aldarrikapenak egiten hasi zen eta greba kopurua asko handitu zen. Horrez gain, Nafarroako langile mugimenduaren ezaugarri nagusietako bat; gainerako langileekin duen elkartasuna da. Hau da, fabrika batean graba bat deitzen bazuten, inguruko langileak ere beraiekin elkartasunean, lana egiteaz uzten zuten.

---

Estatu mailan garai horretan sindikatu moduko bat zegoen “Sindicato Vertical” deiturikoa; hala ere, hau erregimen frankistaren esku zegoen eta honetan lan egiten zuten pertsonak gobernuak erabakitakoak izaten ziren. Hala ere, Nafarroa mailan CCOO deituriko elkarte bat zegoen; non alderdi politiko desberdinetako pertsonak elkartu egiten ziren. Honen bidez, egindako greba osoak deitzen ziren. Gauzak honela, erran daiteke, Nafarroan gizarte mailan ere aldaketa handiak ematen ari direla.

- **Familia.**

Ikusi bezala, estatuko gizartean aldaketa handiak ematen ari ziren eta horrek eragina izan zuen familian ere:

“Conjuntamente con los cambios político-económicos, se produce un cambio esencial en la sociedad española, un cambio que, respecto a la familia, podríamos caracterizar como fin de la familia tradicional (entendida esta como un matrimonio efectuado por el rito católico mas la descendencia habida dentro de este) y surgimiento de modelos alternativos de la familia (pluralidad de modelos familiares) así como de transformación y modernización de las mentalidades parejo al cambio social, un proceso que sigue su propio ritmo dentro del cual debemos señalar como tendencias principales la secularización de la sociedad, la equiparación de la mujer con el varón. La privatización de las relaciones familiares y, en consecuencia, actitudes progresivamente tolerantes hacia los comportamientos que se alejan del modelo anterior.” (G. Cabrejas de la Heras,).

Frankoren garaian, modelo tradizionala zen familiaren osaeraren modelo printzipala. Gizon emazteak, zeremonia erlijioso baten bidez bere bizitza elkartzen zuten eta honen bitartez gizonarenganako emakumearen subordinazioa hasten zen; hau da, emakumearen lana gizonen agindupean egotera mugatzen zen. Emakumea etxean geratzen zen eta gizonak etxetik kanpo lan egiten zuten. Gauzak honela, gizona lanetik bueltan etxera etortzean, honek janaria mahaian edukiko zuen, arropa prest eta guztia egina; modu honetan, gizonak etxean deskantsatu zezan. Horrez gain, familian izandako seme-alabak errespetu handiarekin tratatuko zituzten familiako zaharrak edo helduak. Kasu honetan ere, aitaren edo aitonaren hitzak amarenak baino balio handiagokoa izango zuen.

---

Frankoren heriotzaren ostean, familiaren egituraren aurrerapen eta garapen prozesua hasiko da. Honen bitartez, adin nagusitasuna parekatu egingen da bi sexuetan, gizonak zein emakumeak adin nagusitasuna 18 urtetatik aurrera eskuratuko dute. Bertzalde, 1978ko konstituzioko 14. artikuluan espainol guztien berdintasuna deklaratu da sexu edo jaiotze desberdintasunik egin gabe (ez da desberdintasunik egingen haur legitimo edo biologikoen artean). Modu honetan, eta Cabrejas de las Heras-en hitzak erabiliz: “ La familia tradicional, tal y como había sido entendida hasta entonces, era vaciada de contenido y el lugar de los imperativos morales católicos era tomado por la libertad, la justicia, la igualdad y el pluralismo político, dentro de un estado definido como aconfesional”.

Hala ere, onartu beharra da, Espainian jasaten ari zen krisi egoeraren ondorioz, aurrerapen hauek ez ziren era zuzenean eman. Izan ere, alor ekonomikoan krisi sakon bat pasatzen ari zen estatuan eta honek ez zuen aukerarik ematen emakumeak lan munduan integratzen hasteko. Beraz, aldaketa emateko lehen pausoa eman bazen ere; hau ez zen bat-batean eta era automatikoan eman.

Bertzalde, Kode Zibilaren erregulazioaren ostean, dibortzioa erregulatu egin zen. Azkenean, Espainiako legedia Europako gainerako herrialdeekin parekatu egin zen eta modu honetan, bikote guztiek eskubidea zuten dibortzioa eskatzeko. Gauzak honela, familia berriak eraikitze bidea irekitzen zen; modelo tradizionala aldatzeko aukera eman. Hala ere, familiaren barruan aldaketa hauek ematerako orduan, bereizketa nagusi bat egin behar da hiri eta landa eremuen artean. Landa eremuan oraindik ere, familia tradizionalaren oinarria egoten jarraitzen du; hiri handietan familia nuklearren (aita ama eta seme-alabak; ez da zertan ezkontza bidezko lotura bat egon behar) alde egiten den bitartean. Bertzalde, guraso bakar familien proportzioa handitzen da; dibortzioa dela eta, batez ere; baita familia pertsona bakarrena ere.

- **Nafarroako familiak.**

Nafarroako probintzian gehiago zentratuz gero, erran dezakegu, 1975. urtetik aurrera ezkontza tasa asko jaitsi egin zela. Honen arrazoietakoa bat, arestian erran bezala, emakumeak lortutako “independentzia” izan daiteke. Frankoren heriotza eta gero, estatu mailan emakumearen papera aldatu egin zen; batez ere, alderdi feministek

aurrera eraman zuten borrokaren ondorioz. Momentu honetan, ez da beharrezkoa gizon batekin ezkontzea etxetik ateratzeko. Emakumeak nolabait ere, erabakitzeo aukera dute; hau ez da guztiz errealitatean gertatzen dena; baina ezkontzen tasaren jasketaren oinarrietako bat da. Hau Espainia osoan eman zen fenomeno da; baina Nafarroako kasuan azpimarragarria da. Izan ere, kontuan hartu behar dugu, probintzia hau landa eremuko delako; hau da Nafarroako populazioa osatzen duten pertsona asko, landa eremutik datoz. Gauzak honela, aipagarria da, landa eremuko lurraldea izanik, alderdi horri begira, Nafarroako kasua aipagarria izatea. Arestian erran bezala, orokorrean, landa eremuetan eredu tradizionalari jarraitzeko joera handiagoa zegoen eta horrelako datuak biltzeak atentzia deitzen du.

Bertzalde, dibortzioen tasa biltzen duen taula bat aurkeztuko dut; non Espainiako zein Nafarroako datuak biltzen dituen.

Tabla 4 • *Personas separadas y divorciadas en la población (en %)*

España								
	1975	1981	1986		1991		1996(2)	
	div/sep	div/sep	div.	sep.	div.	sep.	div.	sep.
total	0,3	0,6	0,2	0,7	0,8	0,4	-	-
hombres	0,1	0,3	0,1	0,3	0,3	0,2	-	-
mujeres	0,2	0,4	0,1	0,4	0,5	0,2	-	-
Navarra								
	1975	1981	1986		1991		1996	
	div/sep	div/sep	div.	sep.	div.	sep.	div.	sep.
total	0,1	0,3	0,1	0,5	0,3	0,6	0,5	0,8
hombres	0,1	0,1	0,1	0,2	0,1	0,3	0,2	0,3
mujeres	0,2	0,2	0,1	0,3	0,2	0,3	0,3	0,5

Fuente: Elaboración propia de los Censos y Padrones de Población.

Nota: (1) Los porcentajes están calculados respecto al total de cada grupo de población. (2) No es posible calcular estos porcentajes para España en 1996 porque el Padrón no recoge el estado civil de la población.

Ikusi bezala, tasak ez dira oso desberdinak Nafarroan eta Espainia konparatzen baditugu. Hala ere, aipatzekoa da, hazten ari den fenomeno delako; hau da, Espainia mailan 1975ean abenduko portzentajea 0.3koa bazen; urte horretatik 15 urtera kopuru hori ia hirukoiztu da. Nafarroan hazkuntza prozesu hori ez da horren nabaria izan.

Horretaz gain, Nafarroan bertze fenomeno bat aurrera eramaten da; non bikoteek gero eta ondorengo gutxiago izaten dituzte; haur gutxiago sortzen dira. 1975-1986 urte bitartean, Nafarroako ugalkortasun tasa erdira jaitsi zen; hau da, 1970ean lau seme-alaba zituen bitartean, urte tarte horretan bi izatera pasako zen. Beraz, erran dezakegu, Europan egon zen baby-boom prozesu horren ostean jaiotze tasak jaisten hasi zirela poliki-poliki.

Guzti honekin, dagoeneko era simple batean azertu dugu nolakoa zen frankismoaren azken urteetako gizarte eta familia egoera Espainiako estatuan eta baita Nafarroan ere. Gauzak honela, askotan errepikatu diguten bezala, gizarteak eta eskolak lotura handia dute. Beraz, ondorengo lerroetan garai horretako eskolen ezaugarri nagusiak aztertuko ditugu; ondoren, gaur egun eskolekin konparaketa bat egiteko eta eman diren aurrera pausu zein atzera pausoak behatu eta aztertzeko.

- **Hezkuntza.**

Hona hemen frankismoaren garaian biltzen diren eskolatze datuak. Era honetan argi ikusten da, frankismoaren garaian eskolatu gabeko gabekoen portzentajea nahiko handia dela 1960-1961 bitarte, biztanleriaren %21.4 eskolatu gabe zegoen. Zifra hau nahiko handia da XX. mendean gaudela kontuan hartzen badugu. Gerra zibila bukatu eta gero, eskola berrien eraketak (erregimenaren ideia zabaltzeko intentzioarekin) ez zuten inportantzia handirik izan.

Tabla 22: Tasas de escolarización en España durante el periodo 1960-61 a 1970-71.

Curso	Población en edad escolar	Matrícula		Total alumnos matriculados	Tasa de escolarización
		Pública	Privada		
1960-61	4.311.426	2.502.672	884.678	3.387.350	78,6%
1965-66	5.047.181	2.784.146	1.158.047	3.942.193	78,1%
1970-71	5.029.513	3.194.860	1.554.623	4.749.483	94,4%

Fuente: Esteban, L. y López, R. (1994, p. 532).

Hala ere frankismoaren azken urtetan, eskolatze tasak ia-ia %100 izatera iristen dira.

“La tasa oficial de escolarización española en el curso escolar 1973-1974 alcanzó el 97% de la población en edad escolar (con los datos del MEC de 1976, referidos a 1974, los alumnos no escolarizados eran solamente 25.000 en todo el Estado)” (Martinez Perez Cuenca, 2009, 88)



---

Frankismoan planteatutako eskolak, eredu konfesionala, sexuen artean bereizitakoa, gaztelera ez den hizkuntza baztertuko duena, eta pedagogia tradizional, estatiko eta errutinaz beterikoa defendatuko du. Eskola honetan, Espainia goraipatuko da; batez ere, Frankok lortu nahi duen Espainia. Bertzeak bertze, historia lantzerako orduan, Espainiako Errepublika garaia ez da aipatuko baina Errege Katolikoek Espainia bai. Ikusi bezala, hezkuntzaren bitartez, populazioa kontrolpean mantendu nahi da, ideia berritzaile eta desberdinak ez agertzeko. Hezkuntza immobilista eta aurrerapenik gabeko bat aurkeztu nahi da. Horrez gain, erlijioak ere paper handia hartuko du garai honetako eskoletan eta behar beharrezkoa izanen da katixima jasotzea. Honen arrazoi nagusia katolizismoak frankismoarekin izan zuen lotura handia da. Bukatzeko, “Formacion politica; Doctrina e Historia del Movimiento” arloa ematea beharrezkoa zen; hau Falangisten eskuetan geratzen zen eta honen eginkizun nagusia Frankoren diktadura goraipatzea zen.

Frankismoaren azken urtetan, 1970. urtean Ley General de la Educacion deituriko hezkuntza legea proposatu zen. Ikusi bezala, azken urteetan Espainiako gizartea asko aldatzen ari zen, herrialde garatuei gehiago iruditzekeko intentzioarekin. Gauzak honela, hezkuntza lege berria sortzeko arrazoiak ondorengoak dira:

- Eskolaren bitartez transmititzen ziren *edukiak nahiko zaharkituak* zeuden. Erran bezala, frankoren garaian alderdi politikoari garrantzia handia ematen zitzaion; haur guztiak Frankok egindako gauza ona guztiak entzuten pasatzen zuten egun guztia eta horrek gizartean eragin bat zuen. Haurrak hasiera batetik manipulatzeko zituzten, aurreratzean arazorik eman ez zezaten. Bertzalde, erlijioari inportantzia handia ematen zitzaion eta gainerako edukiei lekua kentzen zien.
- Eskola *kopuru eskasia* zegoen; arestian aipaturiko mugimendu migratorioen ondorioz; hau da, jendea landa eremutik hirira joaten zen. Gauzak honela, hiritan zeuden eskolak eskaera handia zuten eta ez zegoen haur guztiendako lekurik. Horrez gain, hezkuntza aldatu behar zen; izan ere, hirian bizi ziren haurrak mota bateko hezkuntza bat jasotzen zuten; herri txiki bateko eskola batean jasotzen zutenarekin alderatuz. Azken finean, bi kasuetan haurrak bi errealitate

---

desberdinetarako prestatzen ari zara, eremu berdinean bizi arren; hau da, hirian haurra industria gune batean lan egiten prestatzen duzu; non ordutegi zehatz batzuk bete behar dituen, langile eskubide batzuk dituzun, etb. Bertzalde, landa eremuan ez daude ordutegirik (prest egon behar zara behar denean lana egiteko), txiki-txikitatik etxean laguntzeko ohitura hartu behar dute eta eskolaz gain bertze bete behar garrantzitsu batzuk dituzte hurrek. Gauzak honela, hirietako eskola kantitatea handitzeaz gain, hurrek landa eremuan jasotzen zuten hezkuntzatik, bertze mota bateko hezkuntzara pasatzen ziren.

- *Esku lan profesionalizatu beharra.* Eratu berriko enpresa eta fabriketan lan egiteko, esku lan kualifikatua behar da; hau da, lan hau egiteko jendea prestatu behar da.
- Lehen Hezkuntzatik, Goi Mailako hezkuntzara zegoen *jauzia oso* handia zen.
- Ikasleen *emaitza txarrak* hainbat arlotan.
- Hezkuntza *kalitate desberdintasun oso handiak*; hau da, ikastetxe konkretu batera joaten ziren ikasleak kalitate handiagoko hezkuntza bat jasotzen zuten, ondoko ikastetxean baino. Hezkuntzaren kalitatea eskola pribatu edo publikoen esku geratzen zen kasu askotan. Modu honetan, eskola pribatuetan jasotzen zen hezkuntza kalitatea hobeagokoagoa izaten zen publiko batean jasotzen zenuena baino.

Modu honetan, lege berriaren sormena ahalbidetu zen; zeinetan helburu, berrikuntzarik garrantzitsuena Hezkuntza Basikoaren doakotasuna eta derrigortasuna ziren. Hau da, estatuan bizi ziren haur guztiei aukera berdintasun minimo bat emateko, 6- 14 urte bitartean eskolara joateko derrigortasuna zuten eta ez zuten ezta pezeta bat ere ordaindu beharko zerbitzu honengatik.

---

Lege honen arabera; “ La educación General Básica tiene por finalidad proporcionar una formación integral, fundamentalmente igual para todos y adaptada, en lo posible, a las aptitudes y capacidades de uno”. (Ley General de Educación, 1970)

Gauzak honela, Espainian zegoen alfabetazio eza tasa poliki-poliki jaisten joan zen; klase sozialen desberdintasuna txikitzen joan zen heinean. Azkenean, hezkuntza lege eta eskolan egin zen lanketaren bitartez, estatuko biztanle guztiek aukera berdina zuten eskolara joateko eta bertan ikasteko. Beraz, erran daiteke Hezkuntza lege honek onura handiak ekarri zituela eta Espainia herrialde garatuenen parean jarri zen alfabetizazio tasa kontuan hartzen badugu.

#### *5.1.2. Egungo gizartea, familia eta hezkuntza.*

- **Gizartea.**

Azken urte hauetan, aldaketa handiak ematen ari dira mundu osoko herrialde guztietan eta erran daiteke, aldaketa sozial handi baten hasieran gaudela. Gauzak honela, erran dezakegu fenomeno global bat dela eta herrialde guztietan berdina gertatzen ari dela; baita estatu Espainolean ere. Orain arte boterea ematen zuten errekurtsu naturalak beren nagusitasuna galtzen ari dira eta informazio eta ezagutzari bidea irekiz. Imajina ditzagun, herrialde batek badakiela nola lortu daiteken erregai bat eta informazio hori berarentzat gordetzen duela; bere inguruan dauden gainerako herrialdeak beraren erranetara egonen dira; informazio hori gainerakoekin konpartitu dezan. Beraz erran daiteke, “Informazioaren garaian” gaudela eta informazioka boterea ematen duela.

Gai honen inguruan aritu diren hainbat teorikok erraten dute informazioak demokratizazio boterea duela (Alvin Toffler); hau da, egun informazioa leku guztietara iristeko aukera dauka, (komunikazio bideak eta teknologia berriak direla eta) beraz “el débil y el pobre pueden adquirirlos”. Fenomeno hau modu honetan interpretatuz gero, erran daiteke, garai honek berdintasun eta homogenitate handiagoa ematen diola gizarte honi. Baina benetan honela gertatzen da?

---

Hasteko, aldaketa sozialak gauzatzeko faktorerik garrantzitsuenetako bat desberdintasun sozialaren handiagotze bat ematea da. Herralde garatu baten azalean jarriko gara fenomeno hau hobeto ulertzeko; hala nola: Espainia. Hemen, informazio eta ezagutza handiak erabiltzen dituzte estatuko aktibitate produktiboetan; honek eragina du, lanaren antolaketan. Azken finean, ezagutzak sortutako teknologia eta makina berriak, orain arte langileek egiten zuten lana betetzen dute. Gauzak honela, lanaren antolaketa berriak, langileen arteko desberdintasun (desigualdade) kantitatea handitzeaz gain, gizarte fenomeno berri baten sorrera ekartzen ari da: esklusioa. Gizakiak produkzio zikloaren kanpoan geratzen ari gara, informazioak eta ezagutzak sortu dituen makina berrien ondorioz. Baina prozesu hau ez da hemen bukatzen:

“El fenómeno de la exclusión provoca, desde este punto de vista, una modificación fundamental en la estructura de la sociedad. Según el enfoque, estaríamos viviendo un momento de transición entre:

- a) Una *sociedad vertical*, basada en relaciones de explotación entre los que ocupan las posiciones superiores frente a los que ocupan las posiciones inferiores.
- b) Una *sociedad horizontal*, donde lo importante no es tanto la jerarquía como la distancia con respecto al centro de la sociedad.” (Román Pérez, 19)

Sozietate bertikal batean, esplotazio egoera batean, esplotatua dagoen taldeak badu zerbaiten kontra aldarrikatzeko era; badu zeinengana jo bere egoeraz kexatzeko. Aldiz, esklusioaren kasuan, ez dago talde kontzientzia bat zerbaiten aurka joateko, ez dago pertsona edo objektu bat ari errebindikatzeko. Azken hau da Espainian gertatzen ari dena, esklusio prozesu handi bat gertatzen ari da estatu barruan. Berrero ere, Martiniano Roman Perez-en hitzak hartuz “La explotación es un conflicto, la exclusión es una ruptura”.

Bertzalde, komunikazio bideak eta teknologia berriak egungo gizartean eragin handia dute. Egun, ia munduko etxe guztietan telebista, telefono mugikor edo/eta internet dago (ez dagon etxean desigualdade egoera handi bat dago). Espainiako estatuan biztanleriaren %99,5 telebista dauka etxean eta %68.7 ordenagailua dauka (INE). Hauen erabilerari esker, espazio eta denboraren kontzeptuak birmoldatzen ari dira.

---

Duela urte batzuk, Txilen arazo bat gertatzen bazen bertan geratzen zen eta puntu; egun hauetan aldiz, denok aukera dugu momenturo hango egoera ezagutzeko. Teknologia berri hauei esker, herrialdeen arteko mugak ez dira horren nabariak eta errealitate global batez hitz egin dezakegu.

Honekin erlazionaturik, komunikazio bideak jendea manipulatzeko duten erraztasunaz hitz egin behar da. Komunikazio bideak masa kontrolatzeko modu erabilgarri eta egokiak dira guztioi iristen zaigulako eta era erraz batean gure barruan sartzen delako. Informazioa guztion esku dago, baina informazio hori filtro batzuetatik pasatzen da eta hauek, informazio hori moldatu (transgibertsatu) dezakete. Hau da, gertaera bat pasatu eta gero, bi aldizkarik edo telebistek horren inguruan hitz egiten dutenean, eta askotan errealitate berdinarengatik inguruko bi bertsio desberdin eman dezakete. Gauzak honela, oso garrantzitsua da hori interpretatzen jakitea eta modu kritiko batean informazio hori jasotzen jakitea. Egungo gizartean oso garrantzitsua da kritikotasuna garatua izatea; bertzela, bertze pertsona eta errealitate batzuen menpe biziko gara. Haurrak manipulazio horren biktimarik ahulenak dira, kritikotasun hori ez dutelako horren garatua; beraz inportantea da txiki txikitatik hori barneratzen joatea.

- **Familia**

Egungo familiaz hitz egiten hasten bagara; honen erran beharra da azken urte hauetan, familiaren sorrera asko aldatu dela. Aurreko urteetan familiaren inguruan aritzean, familia tradizionalen pentsatzen genuen; baina poliki-poliki (70. hamarkadan aldaketa ematen hasten zen) familiaren estruktura aldatzen hasi zen. Orain, familia nuklearraren handiera bat ematen ari da, haur kantitatea murrizten ari da, familien arteko elkartzek ez dira nahita nahiez ezkontza baten bitartez eman behar, haurrak ez dira zertan bi gurasoekin bizi behar, etab. Familiaren estrukturak asko aldatzen ari dira. Hona hemen *familia mota* edo eredu en laburpen bat:

- *Familia nuklearra*: aita-ama eta hauen seme-alabak (biologikoak edo adoptatuak).
- *Familia zabala*: etxe berdin batean familia nuklear bat baino gehiago bizi denean; hau da, aiton amonekin bizitzea, osaba baten batekin...

- *Familia monoparental*: guraso bakar batekin haurra/k bizi direnean.
- *Ama senargabearen familia*: amak hasiera batetik haurra bakarrik izaten duenean sortzen den familia.
- *Guraso bereizien familia*: aita amak arrazoi desberdinengatik haien lotura hausten dutenean.
- *Birsortutako familia*: familia bateko kidea, bertze pertsona edo familia batekin elkartzen denean sortzen dena. Hau da, alargun edo bereizi den emakume edo gizon bat bertze pertsona batekin elkartzen denenak.
- *Familia homosexuala*: guraso biak sexu berdinekoak direnean ematen da.

Gauzak honela, hona hemen Nafarroako kasuan aurki dezagun familia motak biltzen dituen taula.

Tabla 1. Hogares clasificados por tipo estructural.

	Porcentaje de hogares			Porcentaje de población			Tamaño medio		
	2003	2005	2007	2003	2005	2007	2003	2005	2007
<b>Hogares con familia</b>	<b>78,3</b>	<b>79,3</b>	<b>80,8</b>	<b>91,1</b>	<b>92,0</b>	<b>92,5</b>	<b>3,3</b>	<b>3,4</b>	<b>3,4</b>
Pareja sin hijos	18,0	17,6	20,4	12,5	12,2	14,4	2,0	2,0	2,0
Pareja con hijos	43,7	41,5	41,7	58,3	55,3	55,0	3,9	3,8	3,8
Monoparental	4,9	4,4	5,1	4,4	3,5	4,6	2,6	2,3	2,6
Pareja con hijos y algún padre/madre	2,8	3,1	2,5	5,2	5,4	4,4	5,3	5,1	4,9
Pareja con hijos y otros parientes	2,0	2,2	2,1	3,6	4,0	4,1	5,3	5,4	5,8
Otros tipos de hogar con familia	6,9	10,5	9,0	7,1	11,6	9,9	3,0	3,2	3,2
<b>Hogares sin familia</b>	<b>21,7</b>	<b>20,7</b>	<b>19,2</b>	<b>8,9</b>	<b>8,0</b>	<b>7,6</b>	<b>1,4</b>	<b>1,1</b>	<b>1,2</b>
Persona sola	20,0	19,6	18,2	6,9	6,8	6,6	1,0	1,0	1,0
Personas no emparentadas	1,7	1,1	1,0	2,0	1,2	1,0	3,4	3,2	2,8
<b>TOTAL</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>2,9</b>	<b>2,9</b>	<b>2,8</b>

Fuente: IEN, 2007

Datu hauek behatuz gero, erran dezakegu Nafarroan aurkitzen ditugun bikote gehienak haurrak izaten dituztela. Hala ere, poliki-poliki joera hori jaisten ari da; izan ere, gero eta bikote gehiago daude haurrik izaten ez dituztenak. Bertzalde, familia

---

guraso bakarren portzentajea ez da oso handia; baina, igotzeko joera duela nabari da. Bukatzeko, azkeneko kasuan badago apartatu bat dago; non, bertze mota bateko familiak biltzen dituen (bertan familia homosexualak eta ama senargabeak sartuko genituzke). Guzti hori alde batera, hori ez da harritzekoa, baizik eta talde honek duen handitzeko joera. Beraz, honekin erran nahi dut, gero eta baztertuago dagoela gizartean familia tradizionalaren ideia. Hala ere, ezkontzeko joera mantentzen da: “el 93,5% de las parejas que residen juntas lo hacen en la forma matrimonial; el 6,5% conviven como pareja de hecho” (Martinez Magdalena, 2008, 8)

- **Hezkuntza.**

Guzti honekin, argi gelditu da familia eta gizartea asko aldatu direla eta dagoeneko mila aldiz errepikatu dugun moduan, guzti honek eskolan eragina izan du. Ondorengo lerroetan, gaur egun (denbora gutxiz jarraituko duen arren LOMCE-ren proposamena egin du gobernauk), indarrean dagoen hezkuntza legea aztertuko dugu Ley Organica de Educacion (LOE 2006) honek dioena aztertzeko.

Lehenik eta behin, erran beharra da, hezkuntza lege berri hau, Ley Orgánica de Educación 2006, Jose Luis Rodriguez Zapateroren gobernuan sortu zela. Honen aurretik zegoen gobernu eskuindarrak, hezkuntza lege berri baten proposamena egin zuen (LCE 2002) baina ez zen inoiz aurrera eraman. Gauzak honela, lege hau sortzen da egungo sozietateak garrantzia handia ematen diolako gazteek jasotzen duten hezkuntzari, honen menpe daudelako ongizate indibiduala zein kolektiboa. Horretarako hiru printzipio orokor proposatu zituen:

1. Biztanle guztiei kalitatezko hezkuntza bat eskaini, sexu desberdintasunik egin gabe eta hezkuntza sistema guztietan.
2. Guztion esfortzua; hau da hezkuntza komunitatea osatzen duten partaide guztiak elkarlanean aritu behar dira helburua lortzeko.
3. Europar Batasunan planteatu diren hezkuntza helburuak betetzeko konpromezua:
  - a. Hezkuntza Sistemaren kalitatea eta efikazia hobetu; irakasleen prestakuntza, IKT-ei sarrera, ikerketa zientifikoak...

- 
- b. Hezkuntza Sistemarako sarrera erraztu ; oportunitate berdintasuna, ekitatea, inklusioa...
  - c. Sistema mundura zabaldu, inguruarekin harremanak eratuz.

Gaur egungo eskolaren proposamenean bi aspektu berri eta oso garrantzitsua aipatzen dira. Alde batetik, hezkuntza komunitatearen fenomenoak sortzen da. Honekin erran nahi dena da, eskolarekin erlazioa duten erakunde guztiak elkarlanean aritu behar direla; ahalik eta hezkuntza kalitate hobetuegatiko bat lortzeko intentzioarekin. Hau da, irakasleak, familia eta eskola inguruko komunitatea elkarlanean aritu behar dira. Baztango herri txiki bateko egoeran jartzen bagara, benetako hezkuntza komunitate bat osatzeko, udaletxearen laguntza jaso beharko zuen behar duen kasuetan edo beharrezkero herriko erakundearen laguntza ere. Bertzalde, gurasoen inplizakioa ere egon behar da; azken finean, beren seme-alaben hezkuntzarekin jolasten ari dira eskola. Garrantzitsua da gurasoen iritzia ezagutzeko, denok alde berdinerara joaten direla jakiteko.

Bertzalde, teknologia berriak eskolan ere beren bidea egiten ari dira. Egun, informazioaren garaian bizi gara eta hau gure eskuetara iristen da komunikazio bideen bidez, edo internet-en bidez. Garrantzitsua da eskolan haurrak bizi behar duten errealitate horretarako prestatzea. Modu honetan, eskoletan hauek ezagutzeko eta modu kritiko batean erabiltzeko premia agertzen da. Izan ere, hauek manipulaziorako bideak dira eta haurrak dira fenomeno honen biktimarik babesgabetuenak.



---

## 5.2. Abiapuntu kontzeptuala.

Lanaren planteamenduari jarraikiz, gaur egun eskola modu sakon batean aztertuko dugu; noizbehinka aurreko etapetako eskolarekin konparaketa eginez. Izan ere, iraganean gertatutakoa kontuan izatea garrantzitsua da izan diren aldaketak ikusi ahal izateko. Hala ere, egungo errealitatean zentratu nahi dut gehiago, hau delako bizitzen ari garen errealitatea eta gure ondorengoek biziko dutena. Gauzak honela, puntu batzuetan atentzio berezia jarriko dut gaien gehiago zentratzen naizen heinean eta hauek kontuan hartzea inportantea ikusten dut.

Lehenik eta behin gizartearen *generazioetan* atentzioa berezia jarriko dut. Hau da, aitona-amonen generazioa, gurasoen generazioa eta gazteena edo orain jaiotzen ari direnena. Izan ere, guzti hauek testuinguru desberdin batean bizi dira eta honek duen eragina aztertzea interesgarria da. Kontzeptu honekin lotura handia duen bertze bat, sozializazio prozesua da; azken finean, errealitate bat dugun bitartean, hau ezagutzeko eta honi egokitzeko prozesu bat dago, urteetan zehar aldatzen dena, generazioz generazio. Bertzalde, hauetako (generazio) bakoitzak, errealitate desberdin bat ezagutu du eta bertze bat sozializatzeko unean hori agerian geratzen da. Ziur nago, zuen aitona-amonek noizbait komentarioren bat egin dizuten; non argi gelditu den, gizon eta emakumeen lanak bereizten direla. Hala nola, janaria prestatzea, etxea garbitzea, haurrak zaintzea, ... emakumeen lanak dira; aldiz, eraikuntzan ibiltzea, suhiltzailea, menditik egurra ekartzea, etb. gizonen lanak dira. Guk agian ez ditugu modu honetan ikusten; izan ere, guk bertze errealitate bat bizitu dugu; non gizon bat sukaldatzen ikus dezakegun edo emakume suhiltzaile bat. Hori gertatzen da, generazio bakoitzak bere errealitatea bizi izan duelako eta errealitatetik errealitatera, urteen poderioz, aldaketa batzuk eman dira.

Honekin lotuta, *sexuen desberdintasuna* ere kontuan hartuko dut. Izan ere, frankoren garaian desberdintasun handia zegoen gizon eta emakumeen artean. Cabrejas de las Heras testuari jarraiki honela adierazten du frankismoaren egoera, “ la subordinacion de la mujer al marido”. Hala ere, egungo egoera hobera doala ematen du eta gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna ez da horren nabaria. Eskolari begira gutxienez, sexuen banaketari jarraitzen dioten gero eta ikastetxe gutxiago daude; eta hori benetan aurrerapauso handia da.

---

Hezkuntza alorrean sartzearekin batera, hainbat kontzeptu garrantzitsu bereiz ditzakegu. Lehenik eta behin, hezkuntza *komunitatearen inguruan* ariko gara; non hezkuntza osatzen duten agente desberdinak elkarlanean harituko diren, kalitatezko hezkuntza bat eskaintzeko asmoarekin. Nahiko kontzeptu berrikoa da eta honen gainean hausnartzeko modukoa da. Izan ere, egun agerian geratzen ari den planteamendua da eta poliki-poliki indarra hartzen ari dena, eskola inklusibo baten amets utopikoa eraikitzeko bidea baita.

Bertzalde, *teknologia berrien* eta *komunikazio bideen* arloa ere landuko dugu. Horiek gure bizitzan agertu diren unetik, pertsonen bizitza asko aldatu da; batzuentzat hobera (teknokratikoak) eta bertzeentzat okerrera (estatikoak). Argi dago, alde bateko zein bertzeko posturak daudela; hala ere, bi posturek onartzen duten ezaugarrietako bat, gure egunerokotasunean eragin duten aldaketa da. Egungo teknologiek gure bizitzan eragin bat dute; gure inguruan aurkitzen ditugu etengabe, eta hauekin elkarbizitzen jakin behar dugu hauek gure egunerokotasunerako ekar ditzaketen onurak (informazioaren txandaketa azkarra) aprobetxatuz eta ekar ditzaketen gauza negatiboak (pobreenen isolamendua) alde batera utziz; eta egoera hori hobera joateko soluzioak bilatuz.

Honekin batera, *irakaslearen papera* ere zentratuko gara. Azken urte hauetan, gizartea aldatu den heinean, irakaslearen papera birplanteatzen hasi da. Orain dela urte batzuk arte, irakaslea jakintza osoaren jabea zen eta berak ematen zuen informazio osoa. Gaur egun, ikasleak askoz ere aktiboagoak dira eta beraiek daukaten ideiak eta iritziak eskolan bere lekua daukate. Beraz, hauen papera ere asko aldatu da. Egun, ez da lan erraza irakasleak egin behar duen esfortzua aldaketa eman dadin. Klasean erabili beharreko metodologia eta arau aldaketa bat eskatzen du honek eta irakasleak bere lana ongi egiteko prozesu hau ahalik eta modu hobereanean gauzatzeko giltza da.

---

## 6. AUTOREEN IKUSPEGI ARRAZOITUAK

Arestian konprobatu dugun bezala, aldaketa handiak eman dira, azken berrogei urtetan. Kasu honetan, gehienbat gizartean familian eta hezkuntzan emandako aldaketetan zentratu gara. Honekin batera erran, hainbat eta hainbat autore gai honetaz kezkatu direla eta haien iritzia agertu dituztela. Horiekin azaldu eta hauen inguruan hausnartzen saiatuko gara. Hasteko familiaren sozializazio prozesuan zentratuko gara eta gero poliki-poliki eskolan zentratzen joanen gara.

### 6.1. Generazioak eta hauen sozializazioa

Bizi garen sozietate honetan, orokorrean egiten den bezala, hiru generazio bereiz ditzakegu; gure aitatxi amaxiak, gurasoak eta gazte edo haurrak. Hauetako bakoitzak sozializatzeko forma desberdin bat dauka bizi izan duen errealitatearen arabera. Gai honen inguruan, Gloria Cabrejas de las Heras asko aritu da eta hona hemen berak errandakoa:

“-Una primera generación de comportamientos conservadores cuyos miembros se sitúan por encima de la edad de la jubilación, socializados en los roles del modelo familiar tradicional, al que los cambios sociales han afectado en menor medida, pues sus valores pertenecen a una época anterior

-En un segundo lugar, distinguimos una generación en la edad adulta, aquella que vive su niñez y primera juventud durante el régimen y que llega a una veintena aproximadamente en los años finales del franquismo o la primera transición: esta generación se ha socializado ya en la sociedad de consumo, se ha educado en mayor medida que sus padres y manifiesta unas opiniones teóricamente más igualitarias frente a unos a unos comportamientos que producen, generalmente la división sexual de las funciones....

-Por último, una tercera generación sería la que se sitúa actualmente en la veintena. Socializados en los valores democráticos, asumen la igualdad entre sexos con naturalidad en lo teórico sobre todo en áreas urbanas y en niveles educativos superiores.” (Cabrejas de las Heras, 9)

---

Guzti honekin ikusi dugun bezala, generazio desberdinak errealtate desberdin bat bizi izan du eta hau barneratzeko era desberdinak izan ditu. Hau da, gure aitaxi eta amatxi frankoren garaia jaio izan ziren eta honetan hasi zen beren sozializazio prozesua. Gauzak honela, gizarte horretako arauak barneratu zituzten, bertzeak bertze, sexuen arteko desberdintasun handiak. Gauzak honela, gaur egun bertze errealtate batean bizi diren arren, bere haurtzaroan jasotako gizarteratze hori presente gelditzen da. Hala nola, oso ohikoa da, hirurogeita hamar urtetik goiti duten bikote baten etxera joaten garenean ondoko eszena ikustea: gizona sofán eserita, askotan ez dakiela zer egin, bere emazteak etxeko lan guztiak egiten dituen bitartean. Hori jaso duten hezkuntzaren eta sozializazio prozesuaren kontsekuentzia da. Gainera, generazio honek gainerakoak sozializatzerako momentuan, arau hauek bere ondorengoei transmititzen dizkie era kontziente edo inkontziente batean. Azkenean, haur batek denbora asko aitaxi eta amatxiarekin pasatzen badu, bertze haurrekin kontaktu handirik izan gabe; ziurrenik haur honek gaur egunetik at dagoen gizarteratze prozesu bat biziko duela.

Ondorengo generazioaren inguruan hitz egiterako momentua, trantsizioaren eredu argia ikusten da. Hau da, beren haurtzaroa eredu tradizionalen oinarritua dago; non, emakumearen papera nahiko gutxietsia dagon eta gizonen papera gorai patzen den. Hala ere, aldaketa bizi izan dute bizi dute eta egungo egoerara egokitzen hasten dira. Emakumearen paperaren inguruan erran, hauek etxetik kanpo bizitzen hasten direla; hala ere, etxean egin beharreko lana ere orokorrean haien eskuan geratzen da. Gizonak orokorrean beren betiko martxan jarraitzen dute. Hala ere, etxeko lanetan laguntzen hasten dira. Ikusi bezala, aldaketaren prozesuaren eredu da generazioa hau; non, kontsumo eta informazioaren garaian pasatu eta pasako duten beren bizitzaren denbora handia. Gauzak honela, erran beharra da sozializazio berri bat gauzatzeko beharra izan duela, generazio honek egoera berrira egokitu behar izan da, zaharkitua ez geratzen.

Urteetan zehar gizarteak aldatzen dela, askotan errepikatu dut eta denok barneratua dugun ideia bat da. Hala ere, urteak atzera egiten badugu, ikusiko dugu gizartean aldaketa bortitzak eman direla; hala nola duela 400 bat urte inkisizioa martxan zegoelarik emakumeak sutan erretzen zituzten eta gaur egun ez da horretan

---

pentsatzen ere eta bortizkeri bat dela iruditzen zaigu. Hori aldaketa sakon bat dela erran dezakegu, baina denbora tarte handian eman den aldaketa bat da. Egun eman den aldaketarik handienetako bat, teknologia berrien eta komunikabideen agerpena izan da. Aldaketa hau oso era azkar batean eman da eta errealitate hau bizitzen ari diren agente osoen gizarteratze prozesu berri bat eskatu dugu “birgizarteratzea”.

Gaur egun, milaka eta milaka ikastaro daude, jende helduak edo/eta zaharrak teknologia berriak ezagutzeko aukera ematen dituztenak. Izan ere, behar beharrezkoa da, aldaketa sakon honetako partaide aktibo izatea; denbora tarte txikian emandako aldaketa oso bortitza izan delako eta gizartearen partaide aktibo izan nahi badugu, hau barneratu behar dugu. Adibide txiki bat jarriko dut, birgizarteratze berri hau emateko pausoa indartzeko. Nortasun agiria epez kanpo geratzerakoan edo galtzerakoan berri bat egitera behartuta zaude. Denok dakigu hau egitea prozesu motza izaten dela; hala ere, askotan txanda lortzea asko kostatzen du. Gaur egun, interneti esker txanda eskatzen aukera zabala dago eta orokorrean, modu azkar batean epe motzerako ordua eskatu dezakezu. Hau egiten ez baduzu, goizean goiz jaiki eta beharrezkoa den tokira joan behar zara ordua eskatzera; ala egiten ez baduzu, txandarik gabe geratuko zara.

Azkenik, azkeneko generazioari begira berdintasunaren gizartean bizitzearen sententzia ematen du. Hala ere, denok dakigu, berdintasunaren alde aurrerapauso asko eman diren arren, oraindik ere ez da guztia lortu. Egun, emakume pila bat beren gizonen eskuetan bere bizitza galtzen dute eta zenbaki hori guztiz desagertu arte, ezingo dugu inoiz berdintasuna hitz egin. Honekin batera, atentzioa deitzen duen bertze gauza bat aipatzen du Carbejas de la Heras-ek bere testua; izan ere, prozesu hori gizarte maila altuetan eta hiritarragotan azkarrago eman eta barneratzen dela erraten du. Lehenik eta behin, onartu beharra da hiri handiak aldaketaren aldeko joera handiagoa izaten dutela herrietan baino. Herri txikietan, tradizioaren oinarria indarrean dago, eta aldaketen aldeko jokamolde ezkorra izaten du. Bertzalde, generazio honek teknologia berrien mundua oso ongi ezagutzen du; izan ere, horretan jaio da eta bere egunerokotasunean sartuta dago. Gaur egungo haurrak edozein mugikor hartu eta hau erabiltzeko gaitasuna dauka; aldiz, bigarren generazioan dagoen pertsona bati mugikorrez aldatzea denbora bat kostatzen zaio; izan ere, berrikaspen

---

bat eskatzen dio. Haurraren kasuan aldiz, ez da prozesu horren beharraren ejenplu handirik eskatzen.

Guzti honekin erlazio bat dauka familia mota eta ereduekin. Erran bezala, familia mota asko daude eta hauetako bat familia zabalak dira; non, partaide tradizionalak gain (aita-ama eta seme alabek osatua) bertze batzuk agertzen diren; aitatxi, amatxi, osaba, izebak, lengusuak... Guzti hauen presentziaz baliatzen den familia batean, haur sortu berriaren gizarteratze prozesua oso aberatsa izanen da; non, generazio desberdinen influentzia izango duen; beti ere, bizi duen errealitatea kontuan hartuz. Aldiz, bertze familia batzuetan gurasoak eta seme edo alaba bakarra aurkitzen dugu, edota ama edo aita bakarra seme alaba batzuekin. Bi kasuetan, gizarteratze prozesua, lehenengo kasuarekin alderatuz desberdina izanen da, ez hobea ez okerragoa, baizik eta ezberdina. Beraz, erran dezakegu familia motak ere haurren sozializazioan eragin handia duela.

## **6.2. Hezkuntza**

Hezkuntza arlora salto eginez gero, hainbat teorikoen iritzia hartu nahi dut kontuan. Alde batetik, hezkuntza komunitatearen inguruan hausnartuko dugu Antonio Bolivar autorearen eskutik eta ondoren, teknologia berriak eskolan duten leku eta eraginaren inguruan ariko gara.

## **6.3. Hezkuntza komunitatea**

Hasteko hezkuntza komunitatearen sorreraren inguruan ariko gara. Erran bezala, egungo gizartearen aldaketak eman dira hezkuntzaren inguruan Bolivarren testuari jarraikiz; “ Ni la escuela es el único contexto de educación ni sus profesores y profesoras los únicos agentes, al menos también la familia y los medios de comunicación desempeñan un importante papel educativo”. Gauzak honela, argi gelditzen da eskola ez dela leku bakarrik ezagutzak eskuratzeko. Gaur egun, ezagutzak gure gorputza inguratzen du eta edozein lekutan aurki dezakegu. Hori benetako abantaila da eta hezkuntza komunitatearen sorrerari esker, abantaila horretaz aprobetxatzen gara; izan ere, honetan, inguruko faktore desberdinak elkarlanean aritzen dira haurrak ahalik eta ezagutza handiena eskuratu dezaten. Aldaketa hau

---

aurrera eramateko, egin beharreko lehenengo lana familiaren laguntza eskuratzea da; honekin kontatzen ez badugu, ezinezkoa egingen zaigu benetako hezkuntza komunitate bat eratzea. Hau eskola eta irakaslearekin batera, agente garrantzitsuenetako bat komunitatearen eraketan. Bertzalde, eskolaren begiak gehiago zabaldu behar dira eta inguratzen dion komunitatearen laguntza eskatu behar du; modu honetan, gizartean agertzen diren erronka desberdinei erantzuna emateko.

#### **6.4. Familia eta eskolaren gizarteratze prozesua**

Argi gelditu da hezkuntza komunitate baten beharra dagoela; hala ere, bertze arrazoi batzuk daude baieztapen hori egiteko. Sozializazio prozesuaren inguruan hitz egiten hasi garenean, bi gizarteratze mota bereizi ditugu: lehen mailako sozializazioa eta bigarren mailako sozializazioa. Orain arte, lehen mailako gizarteratze hori familiaren esku geratzen zen eta bigarren mailakoa eskola eta gainerako instituzioen esku; aldiz, familian emandako aldaketa soziologikoak direla eta, prozesu hau ez da horren era nabarian gertatzen. Duela gutxi arte askok honela erraten zuten “ la escuela enseña, la familia educa”; egun bereizketa hori ez da horren garbia eta ikaskuntza eta heziketa lanak eskola eta familiaren artean banatzen dira. Gauza bat ez da batena eta bertzea bertzearena, bi lanak elkar-banatu eta elkar-trukatu egiten dira etengabe. Gauzak honela, hezkuntza komunitateari izen hori jartzen ez bazaio ere, gizarte egoera normal batean hori gertatzen ari da gaurko errealitatean. Bi sozializazioak agentez trukatu egiten dira; baina ez da inoiz gizarteratze prozesu hori emateaz uzten. Bertzela, haurrak ez ziren errealitate honen partaide sentituko eta haur basatiez hitz egingo genuke.

Orain dela berrogei bat urte, ezagutzen genuen familia tradizioaletan argi eta garbi zeuden ondorengoei erakutsi nahi genizkien baloreak eta arauak. Horretaz gain, balore horiek ez ziren asko aldatzen familia batetik bertzera eta gizarte homogeen eta nahiko estatikoa sortzen zuen. Egun aldiz, familiak irekiagoak eta ezberdinagoak dira, gizartean emandako aldaketen isla, eta honek gizarteratzerako orduan ate pila bat irekitzen ditu. Egun ez dira familia guztietan balore berdinak eta forma berdinean transmititzen. Horrek ondorio desberdinak ekarri ditu, Hanna Arendt-ek hezkuntzaren krisiaren inguruan egindako interpretazioan agerian gelditzen den bezala; “ Los adultos

---

han perdido la seguridad y la capacidad de definir qué quiere ofrecer como modelo de vida a las nuevas generaciones. Por último, los niños y niñas pasan largas horas *fuera del espacio familiar*, con otros agentes de socialización y –además- ha disminuido el contacto directo y la convivencia con los padres y hermanos”.

Beraz, argi gelditu da, gizartean egondako aldaketak, gure ondorengoak sozializatzeko orduan eragina izan duela; alde batetik, haiei transmititutako baloreak aldatu dira. Gaur egungo gizakiak bere burua gauzatzeko eta honetan identifikatzeko beharra dauka; bakoitzaren diferentziak garrantzia hartzen joaten dira eta bakoitzaren dibertsitateak bere burua aberasten du era desberdinetan. Horrez gain, transmisio hori gauzatzeko agenteak bertzelakoak dira. Familia sozializazioaren agente nagusia izatetik bere garrantzia galtzera pasa da eta hutsune hori hezkuntzaren bitartez bete behar dela aurpegiatzen zaio eskolari. Benetako aldaketa izan da hau esfortzu handia eskatzen diona eskolari zein bere langileei. Gauzak honela modu honetan laburtu genezake aurreko lerroetan errandakoa:

“Numerosos análisis sociológicos están poniendo de manifiesto como la capacidad educadora y socializadora de la familia se está eclipsando progresivamente, lo que convierte al centro educativo, como ha dicho Juan Carlos Tadesco (1995) en una <institución total>: asumir – no sin graves contradicciones- tanto la formación integral de la personalidad (formación moral, cívica y de socialización primaria), como el desarrollo cognitivo y cultural mediante la enseñanza de un conjunto de <saberes>, ahora más inestables y complejos. Dado que el núcleo básico de socialización ya no está asegurado en la familia, se transfiere a los centros educativos, produciéndose una <privatización de la socialización secundaria en la escuela>”. (Bolívar, 124)

Gauzak honela, argi gelditu da eskola eta familian egungo gizartean elkarlanean aritu behar direla, gure ondorengoaren etorkizun egokia gauzatzeko. Hala ere, familiak mota ezberdinetako postura har dezake gai honen inguruan. Badira batzuk ez direla lan honetan konprometitu nahi eta eginkizun guztia eskolaren eskuetan uzten dutenak. Gaur egun, gizakia ohituta dago kalitatearen inguruan hitz egiteaz, eta askok hezkuntzaren kalitateaz aritzen dira. Badira familia batzuk inolako esfortzurik egin gabe, eskolari prestakuntza desberdinak eskatzen dizkiona, emaitza onak ateratzeko



---

intentzioarekin, modu honetan kalitatea exijituz. Modu honetan, eskola pribatuaren ideia indartzen joaten da; boterea eta dirua duenak, beren seme-alaben hezkuntzan inplikazio handirik izan gabe, kalitatezko emaitza bat eskatuko du. Aldiz, familiaren inplikazioari esker, bertze era bateko hezkuntza bat sortuko da; non kalitatearen diskurtsoa ere existituko den; baina, horren sortzaile familia izango da. Kasu honetan, eskola komunitateak eta familiak eskatzen duen isla izanen da; beraz honen kalitatea testuinguru horren barruan ez da dudan jarriko. Aldiz, hemendik kanpo dagoen edozein agentek hori baztertu dezake, kalitate falta aitzakiaz hartuz. Modu honetan eskola publikoaren gaineko apostua egiten da; non agente desberdinek bere lekua duten ahalik eta hezkuntza integralena sortzeko.

### **6.5. Irakaslearen papera**

Honekin batera, irakaslearen eginkizunari buruz hitz egin beharra dago. Hezkuntza komunitatearen barruan ematen du irakaslearen lana zertxobait errazten dela, hezkuntzan bertze agente batzuk sartzen direlako honetan. Hala ere, kontrako prozesua ematen dela erran daiteke; izan ere, irakasleak bere papera aldatzen ikasi beharra du “berdefinitu” behar du; eta milaka urte lan berdina edo paper berdina betetzen ibiltzetik aldaketarako bidea egiten hasi behar da. Ez da batere erraza aldaketa bat aurrera eramatea, hoberrako izan arren, eta denbora bat behar da hori gauzatzeko. Gauzak honela, irakaslearen lana askotan koordinatzaile lana ere bada; hori bai, beti irakaslea izango da talde horren buru. “Para ejercer un liderazgo pedagógico se necesita rediseñar los contextos laborales, articular nuevos espacios sociales, campos de decisión y dinámicas de apoyo coherentes, que generen un nuevo ejercicio de la profesionalidad docente”. (Bolívar, 128) Hori da, azken finean, irakaslearen papera hezkuntza komunitate barruan eta baita ikasgela barruan ere. Azkenean, ikasleak ere aktiboagoak dira proiektu honetan eta hauek ere bere ezagutza prozesuaren sortzaileak dira; askotan beraiek bere klase-kideen ezagutza handitzen lagunduko dute alderantziz. Irakaslearen lana izango da agente guzti horien koordinazio egokia gauzatzea.

---

## 6.6. Seme-alaben eskola emaitzak eta familien inplikazioa hezkuntza komunitatean

Orokorrean erran, eskolak familiarekin elkarlanean aritzen direnean lortutako emaitzak positiboak izaten direla. Elkarlaguntza eta elkar ulertze hori lortzea ez da emana izaten den gauza bat, poliki-poliki eraikitzen eta konkistatzen joaten den zerbait da. Baina nola inplikatu daiteke familia bat haurraren ikaskuntza prozesuan? AMPA-k (Asociaciones de Madres y Padres de Alumnos-ek) hainbat ariketa proposatzen ditu inplikazio hori gauzatzeko intentzioarekin:

- a. Eskola eta familiaren arteko lotura hobetu. Irakasle eta familiaren harreman estua goraiatu behar da; non irakasleak bere ikasleekin kontaktu zuzena eta jarrai duen, ikasleen prozesuak adieraziz. Badira guraso eskola batzuk non ikasleen harremanak zaintzen diren bitartean, gurasoen harremanak ere ahalbidetu eta zaintzen ahalegintzen dira.
